

## 10 000 pertsona inguruk bisitatu dute 2021ean Euskal Itsas Museoko 24H. *Egun bat Victoria ontzian* erakusketa

- “24H. Egun bat Victoria ontzian” aldi baterako erakusketa urtarrilaren 9ra arte bisitatu ahal izango da
- Erakusketaren jarduera programazioa urtarrilaren 8an ospatuko diren bi bisitekin amaituko da

Datorren urtarrilaren 9a izango da **24H. Egun bat Victoria ontzian** aldi baterako erakusketa bisitatzeako azken eguna. Ekainaren 26an hasi zen erakusketa, Lehen Mundu Bira eman zuen ontziko bizitzaren xehetasunak biltzen ditu, eta eta Elkanok eta bere gizonek bizi izandako esperientziara hurbiltzen ditu bisitariak. Gainera, amaiera emateko, Euskal Itsas Museoak urtarrilaren 8an hainbat bisita antolatu ditu.

*24H. Egun bat Victoria ontzian* eta haren inguruko programazioak interes handia piztu du. Ekainaren amaieran aurkeztu zenetik, **10 000 bisitari inguru** hurbildu dira Museora. Erakusketari loturiko jarduerei dagokionez, Xabier Alberdi zuzendariarekin egindako bisitak eta “Ontziratu zaitez...” topaketa esperientzialak izan dute oiartzun gehien, batez besteko edukiaren %70 beterik.

Azkenik, Euskal Itsas Museoak erakusketari amaiera emateko asmoz, 2022ko urtarrilaren 8an azkenengo **bi bisita gidatu** antolatu ditu; 13:00etan gaztelaniaz et 17:00etan euskaraz. Ekintzen edukiera mugatua izango da eta Euskal Itsas Museoko web gunean edo komunikazioa@itsasmuseoa.eus helbidean izena ematea beharrezkoa izango da.

Covid-19aren aurrean hartutako azken neurriak direla eta, Museora gerturatzen diren pertsonek **Covid pasaportea aurkeztu** beharko dute Museoaren sarreran.

**Erakusketara bisitak:** Larunbata, **2022ko urtarrilaren 8an - 13:00etan** Gaztelaniaz | **17:00etan** Euskaraz. Doan.

## Cerca de 10.000 personas visitaron la exposición 24H. Un día en la Victoria del Euskal Itsas Museoa en el 2021

- La exposición temporal “24h. Un día en la Victoria” se podrá visitar por última vez el 9 de enero del 2022.
- El 8 de enero dos visitas con entrada gratuita cerrarán la programación de actividades de la exposición.

El próximo 9 de enero será el último día para visitar la exposición temporal **24H. Un día en Victoria**. La muestra, que comenzó el pasado 26 de junio, recoge los detalles de la vida a bordo de la célebre nao Victoria y pretende acercar a la persona visitante a la experiencia vivida por Elkano y sus hombres.

La exposición *24H. Un día en la Victoria* y la programación desarrollada en torno a ella ha generado gran interés. Desde su inauguración a finales de junio, **cerca de 10 000 visitantes** se han acercado al Museo del puerto donostiarra. En concreto, las visitas con el director del Museo Xabier Alberdi y los encuentros experienciales “Embarca con...” han sido muy bien recibidas por el público y se ha completado cerca de un 70 % de las plazas ofertadas.

Además de esto, el Euskal Itsas Museoa ha programado varias visitas como broche final a la exposición. El próximo **8 de enero** se celebrarán en el museo del muelle donostiarra las **dos últimas visitas guiadas a la exposición**. La primera sesión se realizará a las 13:00h en castellano y la última a las 17:00h en euskera. La entrada será gratuita y la inscripción previa será obligatoria a través de [la web del Museo](#) o del correo [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus). Debido a las últimas medidas adoptadas frente a la Covid-19, será **necesario presentar el pasaporte Covid** en la entrada del Museo tanto para la asistencia a las actividades como para la visita de la exposición.

**Visitas a la exposición:** Sábado, **8 de enero - 13:00h Castellano | 17:00h Euskara. Gratis.**